


Mr. Señora

teatro-errezitaldia

Metrokoadroka Kolektiboa



MR. SEÑORA

Teatro-errezitaldia



Metrokoadroka Kolektiboa
metrokoadroka@metrokoadroka.eus
www.metrokoadroka.eus
0034 679 977 276

*“Gaur armairutik ateratzearen aldeko aldarria egitera nator,
armairugabetzearen arriskuaz ohartaraztera,
eta desarmairugabetzearen alde egitera.*

Has gaitzen:

*zein neurritan naiz besteek ikusten dutena?
Existitzen al naiz besteen begiradarik gabe?
Nortzuk zarete zuek begiratzen dizuedanean?
Nik gaur nire armairua topatu dut: antzokia.”*

SINOPSISIA

Mr. Señora antzoki bateko oholtzara igo eta publikoarekin hitz egiten hasi da: begiratuak sentitzen diren gorputzei buruzko gogoeta egin du batetik, bizitzaren edozein arlotan inoiz armairutik ateratzeko pausua eman dutenei maitasun deklarazio bat eskaini die bestetik. Umorez, aldarriz, arima probokatzailez.

EMANALDIAREN AZALPENA

Oier Guillanek “Mr. Señora” izeneko liburua plazaratu du Txalaparta argitaletxearen eskutik, 7 teatro-testuez osatua. Horren harira teatro-errezitaldi dramatizatua sortu dute Metrokoadroka kolektiboko kideek. “Mr. Señora” liburuko testuetan umore absurduak, kezka politiko-sozialetan oinarritutako galderek eta elkartasunerako grinak egiten dute bat.

FITXA ARTISTIKOA

Taldea: Metrokoadroka kolektiboa
Oholtza gainean: Ainhoa Alberdi, Amaia Corral, Joseba Roldan, Oier Guillan.
Kartela eta estetika: Idoia Beratarbide.
Iraupena: 55 minutu.

PARTE HARTZAILEAK

AMAIA CORRAL (DONOSTIA, 1981)

Antzerkilari eta txalapartaria. Dantza garaikidean murgilduta zebilela ezagutu zuen antzerkia eta Bilbo,artzelona eta Granadako eskola desberdinetan landu zuen. Antzerkia eta txalaparta uztartu zituen Agerre Teatroa antzerki konpainiarekin lanean, *Nork ikusi du Dultzinea* eta *Doltza. Dulcinea Quijote vs. Teresa Panza* antzezlanetan. Metrokoadroka kolektiboko kide gisa hainbat proiektuetan parte hartu du, besteak beste, *Herio Heroi*, *Munduan beste*, *Zertarako Hegoak*, *Eguzki Emeak* eta *Hautudeterminazioa* lan eszenikoetan. Taula gaineko ekimenekin partekatzen ditu hainbat ikastegietan eskaintzen dituen antzerki eta txalaparta eskolak.

AINHOA ALBERDI GISASOLA (ZARAUZ, 1969)

Haur bat zelarrik sentitu zuen lehenengoz antzerkiaren harra barreanean. Gazte garaian psikologia eta psikoterapia ikasketak egin zituen, eta geroago izan zuen benetako murgiltzea antzerkian, 2000. urtean gutxi gorabehera... Donostiako TAEn egin zituen antzerki ikasketak eta gerora hainbat ikastaro desberdin egin ditu. Antzerki eta Gorputz adierazpen tailerrak ematez gain hainbat sorkuntza lanetan ere aritu da ordutik, besteak beste, Alproja antzerki taldea, Gorakada, Achiperre teatroa, Kukubiltxo, Metrokoadroka kolektiboa eta Ttak teatroarekin.

JOSEBA ROLDAN (DONOSTIA, 1979)

Donostiako TAEn ikasitakoa. Hainbat antzezlanetan hartu du parte, bai antzeztan bai sormen lanetan: *Un perro escondido* (Bazen Behin Clown), *Esta sí que sí* (Bazen Behin Clown), *Bernardito* (Le Mamelôn Fantastique), *Conccertino para Orgánico y palabro*, *Kolapso*, *Réquiem para Enríquez* (ElConccertino), *Zertarako Hegoak* eta *Munduan beste* (Metrokoadroka), etabar. 2005etik Alquimia Fanzine argitalpena koordinatzen du.

OIER GUILLAN BERMUDEZ (DONOSTIA-ORERETA, 1975)

Idazle eta kazetaria. Hainbat liburu kaleratu ditu poesia eta antzerkiaren arloan, azkenak *Eskuen sustraiak* (Susa, 2009) eta *Herio heroii/Arra.Arraroa* (Artezblai, 2010), *Hura ez da lekua* (Txalaparta, 2012), *Elkartasun basatia* (Susa, 2013) eta *Mr. Señora* (Txalaparta, 2016) . Poesia beste arte diziplinekin uztartzen egin du lan hamaika eszena lanetan, Metrokoadrokarekin batez ere: *Poza*, *Su izan nahi*, *Salto*, *Zertarako Hegoak*, *Munduan beste*, *Nola belztu behar zuria*... Horiez gain Rouge Elea, Dejabu eta Anakrusa konpainiekin kolaboratu du.

IDOIA BERATARBIDE ARRIETA (OIARTZUN, 1977)

Pintorea eta ilustratzailea. Hainbat liburu ilustratu ditu haur eta gazte literaturan zein helduen arloan, azkenak *Lur Beldur* (Uxue Alberdi idazle, Denonartean 2015), *Igel Marroitxo* (Pello Añorga idazle, Haziak 2016), *Hura ez da lekua* (Txalaparta, 2012), *Bihotzero* (Maite Agirrerren autoedizioa, 2015) eta *Mr. Señora* (Txalaparta, 2016). Pinturaren arloan Memoria zulatua izenekoa du erakusketarik berriena. Arte eszenikoetan zuzenean pintatzen zein arropak eta eszenografiak sortzen egin du lan, besteak beste, *Poza*, *Su izan nahi*, *Zertarako Hegoak*, *Publikoari gorroto* eta *Arrastoak* antzezlanetan egin du lan berriki. “Marodi sorkuntzak” taldeko kide ere bada, zeinean arropak eta eszenografiak sortzen dituen Maria de Bernardorekin batera. Oiartzungo 100TZE sormen espazioa koordinatzen du.

METROKOADROKA KOLEKTIBOA

Metrokoadroka hainbat arte diziplinetan gabiltzan hamaika lagunek osatu dugun kolektiboa da. Artistentzako plataforma gisa eta sorkuntzarako elkargune gisa tresna eraginkor bat sortzea da gure asmoa.

Metrokoadrokaren helburua honakoa da: hala arte eszenikoetan nola arte plastikoetan sor daitezkeen proiektuak laguntzea, zabaltzea eta batzuetan sortzea. Beti ere kulturarekiko ikuspegi kritikoari eta esperimendazioari lehentasuna emanaz. Arte diziplina ezberdinen arteko elkarrizketa eta elkarlana da esperimendazio horren oinarri nagusietako bat.

Metrokoadroka harreman artistikoen sare antolatua da, eta horri esker gauzatu dituzten proiektuak. Sare horretan parte hartzen dugunok banakako edo taldeko proiektuak aurrera atera ahal izateko eskaintzen diegu besteei gure ahala.

Kultura beste modu batean ulertzeko, egiteko eta kudeatzeko beharra dagoela uste dugulako antolatu gara modu honetan. Proiektuak sakontasunez, seriotasunez eta ausardiaz sortzea da gure erronka, auzolanean eta harremanen sareetan oinarrituz gure lana.

HARREMANETARAKO

Metrokoadroka kolektiboa
metrokoadroka@metrokoadroka.eus
www.metrokoadroka.eus
0034 679 977 276







Metrokoadroka Kolektiboa
www.metrokoadroka.eus